

Egunon guztioi.

Gaur hedabideen aitzinean agertzen gara Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboaren izenean azken berriak luzatzeko, eta zehazki bi atal hauek jorratu nahi genituzke:

1- Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboaren ordezkariak berria aurkeztea.

2- Ekainaren 15ean Biarritzen burutuko den Elkartasun Hatsari atxikimendua eman eta gure presentzia baieztatzea.

1- Azken urteotan hausnarketa prozesua burutu du kolektiboak, alde batetik berregituratzeko asmoari eutsiz, eta bestetik egoera politiko berria kokatu ondoren prozesu demokratiko bati bere ekarpena egiteko. Aukeraz beteriko garaiak bizi ditugu, eta garaia berri horiei gure konpromisoa eta ilusioa erantsi nahi diogu.

Ehunka gara deserriaren bideetan gauden euskaldunak, munduko bazter guztietan barreiatuak, horrek gure harremana zailtzen du, eta sufritzen dugun egoerari aurre egiteko baldintzak sortu behar zirela ulerturik, berregituraketa prozesua ezarri zen abian.

Gaur, berregituraketa horren emaitza argitara ematea erabaki dugu. Izaera historikoa duena, izan ere, kolektiboa mintzakide talde baten bidez ordezkaturik den lehen aldian izanen baita. Gure kolektiboaren izaera anitza eta zabala nagusitu dira ordezkariak hau hautatzerako garaian.

Iheslariekin hitz egin behar da, hori da gure lehorburu nagusia, korapilo politikoen parte izanik korapilo hori askatzeko modurik zuzenena baita.

Horretarako dei egiten diegu estatuei gure arazo politikoa integralki konpontzeko iheslariak kontutan hartu behar dituztela eta haiekin hitz egin behar dela oroitarazten diegu. Era berean euskal eragile sozial, sindikal eta herritarrei ere deia luzatzen diegu, eta baita alderdi politikoei ere, iheslariekin hitz egiteko gonbidapena luzatuz, honakoa da gure ordezkariak:

-Tomas Linaza (1956, Lemoa), Cabo Verde

-Alfonso Etxegarai (1958, Plentzia), Sao Tomé

-Raquel García (1963, Sopelana), Bruselas

-Josu Lariz (1957, Alzola), Uruguay

-Josu Abrisketa Txutxo (1949, Ugao), Cuba

-Eloy Uriarte (1941, Soralue), Ipar Euskal Herria

-Lourdes Mendinueta (1958, Arbizu), Ipar Euskal Herria

-Jokin Aranalde (1946, Gaztelu), Ipar Euskal Herria

-Jon Irazola (1956, Elorrio), Ipar Euskal Herria

-Oxel Azkarate (1982, Arrasate), Ipar Euskal Herria

- Jon Garmendia (1972, Hernani), Ipar Euskal Herria
- Xabier Miguel Ezkerra (1954, Usurbil), Ipar Euskal Herria
- Xabier Arin (1957, Ataun), Ipar Euskal Herria
- Idoia Espías (1960) Ipar Euskal Herria

2- Babesle talde batek "Elkartasun Hatsa" ekimena antolatzen duen ekainaren 15erako, eta Biarritzeko Irati aretoa eskaini zigun gure ahotsa entzun dadin. Guk deialdia jaso dugu, eta baiezkota ematen diogu, ekitaldi horretan konponbiderako gure proposamena mahai gainean jarriko dugula adieraziaz. Larunbatean gure kolektiboaren zati garrantzitsu bat bertan egongo dela segurtatzen dugu.

Bestalde, Euskal Herriari egiten diogu dei, larunbatean gurekin batera elkartu dadin, herria delako gure oinarri, herria dugulako arnas.

Baionan, 2013ko ekainaren 12an  
Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboa

